

Palestinak munduari dakarkiona



KATIXA DOLHARE-
ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



PAULA ESTÉVEZ

Ezaguna da enpresa frantses batzuek (Thales, Airbus, Dassault) aspalditik laguntzen dutela Israel haren ekipamendu militarra osatzen. Disclose elkartearen inkesta baten arabera, berriz, Frantziako Gobernuak berak hornitu dizkio osagai elektronikoak Israeli, Gazako zibilak erailtzeko baliatu droneak egiteko. Eta, hori gutxi balitz bezala, azken egun hauetan, oraindik plazaratzekoa den gobernu txosten batean oinarrituta, Mediapart hedabideak salatu du Frantziak 2023an 30 milioi euroko material militarra saldu eta eskura eman ziola Israeli, besteak beste, zartagailu, torpedo, suziri eta misilak. Bizkitartean, armen komertzioari buruzko ituna izenpetu zuen Frantziak, zoinak debekatzendion armak saltzea, sumagarri baldin bada gerla krimenak egiteko edo zibilak erailtzeko erabiliak izan direla. Frantziako Gobernuak segurtatzen du xede defentsiboa daukatela azkenik saldu arma haiek, eta ez du argitu nahi Gazan iaz abiatutako genozidioa aitzin ala ondolik iragan den tratua.

Harritzerik ez da, maleruski. Badu sei mende bederen jakin badakigula haltzak ez duela bihotzik, ez gaztanberak hezurrik, boteredun handiak gezurtariak di-

rela, edozein erregimen politikotan. *Le courrier de l'Atlas* aldizkarian egin elkarritzeta batean, Mohamed Najem klarinetista palestinar bikainak dio: "Musika zintzoa da, politika ez bezala". Hain zuzen ere, Najemek bigarren diskoa ateratu du aurten, *Jaffa Blossom* ("Jaffaren loratzea"), aitaxiren omenez. Aitaxi kanporatua izan zen Jaffatik 1948an eta izugarri mingarri izan zitzaion bizi osoan sorterriari eta haurtzaroari pentsatzea. Biloba, berriz, Frantzian dago deserrian, eta saiatzten da palestinar zauriak musikaren bidez ezagutarazten. Haren musika, haatik, ez da negargarria: azentu malenkoniatsu batzuk izan arren, airosa eta umoretsua da. Baigorriara jin zen, 2016an: *Floor No. 4* lehen diskoak piezak jo zituen eta han ginenok harrapatu gintuen bere mundu aberatsean.

Ezen, palestinar sortzaileengandik ikastekoa dugu egia: hotsa eta ardailen gaintetik, gureganaino heldu zaizkigu, hala ere, musikariak, argazkilariak, margolariak, zizelkariak, poetak. Iaz, 2023ko martxoan, Gazako inbasioa aitzin, Parisen dagoen Mundu Arabiarreko Erakundeak obra kolektibo mamiatsu bat ateratu zuen, Seuil argitaletxean: *Ce que la Palestine apporte au monde*

("Palestinak munduari dakarkiona"). Liburuaren sarreran, haxe dio C. Ayadek, "Palestinak denengandik abandonatua dirudien orduan": "Gaizki doan munduaz ari zaigu Palestina. Palestina jadanik bizi da mundu alienatu, zaindu, kaiolatu, basatu, neoliberalizatu batean". Ehun bat artistak eta adituk paratu liburu zoragarri horri segida emateko, izenburu bereko ekitaldi programa aberatsa prestatu zuen erakundeak, eta ondolik online ezarri, palestinar artistei utziz lekua.

Errazki eskuragarri ditugu, bestalde, *Maiatz* aldizkaria eta Susaren Armiarma guneari esker, I. Bordak, J. Sarrionandiak, K. Izagirrek, Sabaietan Ke-k eta X. Bovedak euskaratu Mahmud Darwish-en hainbat olerki, bai eta I. Aiestaran Urizek gurerat erakarri Ashraf Fayadh-enak ere, ARGIAren blogean. Eskupean daukagu oraino A. Lukuren *Falestina* antzerkia (*Garazin antzerki 3*, Maiatz).

Badugu hor, irakasleok (gobernu frantsesak legez "eredugarri" izatera behartzen gaituen irakasleok), klasean lantzeko euskarri sorta bikaina, ikasleekin "egiaren sentsu berriaren bila" ibiltzeko (*Hiltzen dira txoriak Galilean*, Darwish, I. Bordaren itzulpena). ●